

KILOMETROAK 2007 >



Aranzadiko arduradunak, Manterola eta Irurako ikastolako lehendakari eta zuzendariarekin. ARGAZKIAK: IKER AZURMENDI

“Ikastolarik ez dago borroka egin gabe, baina fruitua ematen du”

PATXI AZKARGORTA BERGARARRAK OMENALDIA JASO ZUEN KILOMETROETAN

Familien lana eskertu zuen Aranzadik eta Irurako ikastolari pasa zion lekukoa

A. ZABALETA

BERGARA. Aranzadi ikastola 1971.ean sortu zuten. Baina hori baino askoz lehenago, gerra aurreko urteetan jada, ikastola bazen Bergaran. Patxi Azkargorta han izan zen ikasle, eta atzo omenaldia egin zioten Kilome-

troetan. Udaletxeko areto nagusian izan zen, eguerdian, eta lepo zegoen.

Donostian orduan pisu batzuetan euskarazko eskolak ematen bazituzten ere, Gipuzkoa guztian izan zen lehen ikastola izan zela Bergarako gogoratu zuen Azkargortak, eta gaur egun farmazia bat dagoen lokalean zegoela. Ikasle garaikoak ekarri zituen gogora bergararrak, “lotsatuta” eta apur bat emozionatuta udaletxean bildutakoan aurrean hitz egitea tokatu zitzaionean. Bergarako “euskerie” aldarrikatu eta berak herritik kanpora lan egin behar izan zuela gogoratu zuen, Azpeitiko ikastola sortzeko lanetan aritu baitzen. Eta Jesuitekin ikastetxea zabaltzea lortzeko lana gogor egin

Herritik kanpo ere, Azpeitiko ikastola sortzeko lanetan lagundu zuen Patxi Azkargortak

Mikel Laskurain aktore ezagunak jarri zuen umorea udaletxeko areto nagusian izandako omenaldian



Patxi Azkargorta bergararrak omenaldia jaso zuen atzo.

behar izan zutela onartu zuen: “Borrokan egin barik, ez dago ikastolarik, baina fruitua ematen du gero”.

Azkargortaz gain, Bergarako familiak omendu zituzten atzo Aranzadikoek, “izan direnak, direnak eta izango direnak, ikastolako proiektuan sinistu dutelako”. Guztien izenean plaka oroigarri eta lore sorta bana jaso zuten Felix Altuna ikastolak izan zuen lehen presidenteak, eta honen emazteak, eta baita egungo lehendakari Anjel Mari Egurennek eta bere emazteak ere.

Omenaldiak umore puntua ere izan zuen, Mikel Laskurain aktore

ezagunaren eskutik. Besteak beste, euskara laguntzeko Kilometroak eta hizkuntzaren aldeko festak egitea bai, baina “berba egitea” ere beharrezkoa dela gogoratu zuen.

LEKUKOA, IRURARA Azkenik, Aranzadi ikastolako zuzendari Patricia Urrutiak eta Egurennek lekukoa eman zieten udaletxean Irurako ikastolako ordezkariari, haiek izango baitira 2008ko Kilometroak antolatzeke arduradunak.

Josune Aiestaran zuzendariak Irura herri txikia dela, baina bailarako herritarren laguntza ere izango dutela Bergarako bezalako festa antolatzeke nabarmendu zuen.

“Erreferente izaten jarraitu behar dutelako lagundu behar zaie ikastolei”

IKASTOLEN LANA ETA ETORKIZUNEAN ERE IZANGO DUTEN PAPERA NABARMENDU ZUTEN ORDEZKARI POLITIKOEN

BERGARA. Ikastolen Federazioko arduradunak, Bergarako udal agintariak, Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren atzo Kilometroen hasierako ekitaldian eta guztiek bat egin zuten ikastolek azken hamarkadetan egin duten lana goraiatzeko. Dena den, hemendik aurrera ere “hezkuntza eredu propio batekin, integratzailea eta berritzailea dena, erreferente izaten jarraitu behar dutelako”, oraindik ere ikastolek atzokoa bezalako jaiek ematen dioten babesa eta herritarren laguntza behar dutela azpimarratu zuen Arantza Manterola Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakariak.

Ildo beretik, Administrazioako ordezkariak aurrean zituela eta, Manterolak haiek hezkuntza publikoaren alde egitearekin bate-

ra, ikastolek dituzten baliabideak urriak direla nabarmendu zuen.

Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak ere “behetik gora sortutako ekimenen sendotasuna” agerian uzten dutela ikastolek aipatu zuen, eta aurrera begira euskal hezkuntzak eta hizkuntzaren normalizazioak, eskolez gainera, gizartearen laguntza ere beharrezkoa dutela esan zuen, horrela bakarrik mantenduko baita euskara bizirik.

Markel Olano diputatu nagusiak ere atzoko festa eguna urtetan zehar egindako lan isila errekonozitzeko balio behar zuela adierazi zuen, eta baita konpromisoak indartzeko ere. “Ikastolek urtetan izandako elkarriketarako eta elkarlanerako jarrera guztiontzat lezioa da”, gaineratu zuen.

Azkenik, Aranzadiko lehendakari Anjel Mari Egurennek ere atzo lortutako dirua instalazioak hobetzeko eta berrikuntza pedagogikoetarako erabiliko dutela esan zuen eta horrekin, erdal hiztunak ere euskararako bidean jarri nahi dituztela azaldu zuen. >A.Z.

Ikastolek behetik gora sortutako ekimenen sendotasuna agerian uzten dutela aipatu zuen Tontxu Camposek

Markel Olanok ikastolen elkarlanerako jarrera nabarmendu zuen, “guztiontzat lezioa baita”



Zinta mozteko momentua. ARGAZKIA: I. AZURMENDI

FUNERARIA VASCONGADA
FUNERARIA · TANATORIO · CREMATORIO

Oficinas e instalaciones: Andoain, Donostia (Tanatorio), Erretaria (Crematorio y Tanatorio), Hernani (Tanatorio), Lasarte (Crematorio y Tanatorio), Pasaja, Tolosa (Tanatorio)

SERVICIO PERMANENTE
902 402 900
ZERBITZU IRAUNKORRA

Errekalde 57 y Fuenterrabia, 28 - Donostia
☎ 943 37 69 80 FAX: 943 37 68 79
www.funerariavascongada.com
e-mail: harrera@funerariavascongada.com